

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Fernando Remacha Auditoriumak interprete gazteen zikloa hartuko du ostegun honetan

Larunbatean zikloko hirugarren kontzertua izango da San Nicolas Elizan 17:45ean. Kontzertu guztietarako sarrerak doakoak izango dira

Asteazkena, 2018.eko otsailak 7

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ikasleen Interprete Gazteen III. Zikloko bigarren kontzertua izango da ostegun honetan 19:30etan Iruñeko Fernando Remacha auditoriumean. Kontzertu honetan Lorea Gurruchaga fagotista, Ekaitz Mardaras oboe-jotzailea, Ruben Saéñz saxofonista, María Lacunza sopranoa eta Ranquel Martínez biola-jotzailea izango dira protagonista.



Ekaitz Mardaras (oboe-jotzailea), Rubén Sáenz (saxofonista), Raquel Martínez (biola-jotzailea), Lorea Gurruchaga (fagotista) eta María Lacunza (sopranoa).

Boskoteak musika alemana ardatz duen kontzertua eskainiko du: J. Brahms eta 'Die Nacht' eta R. Straussen 'Ständchen' op. 120 N^a1 sonataren zati bat, G. Pucciniren 'La Bohème' opera italiarraren 'Quando m'en vo' aria; musika frantziarra ere eskainiko dute C. Debussyren 'Apparition' obra, eta J. Iberten saxofoi eta orkestarako prestatutako concertinoaren zati bat, H. Dutilleuxen fagot eta pianorako prestatutako 'Sarabande et cortège' eta F. Poulencen piano, oboe eta fagoterako prestatutako hirukoa, azkenik musika espainiarra ere entzuteko parada izango da, J. Guridiren 'Mirentxu' eta M. Fallaren saxofoi eta pianorako prestatutako zazpi kanta. Kontzerturako sarrera doakoa izango da.

Fernando Remacha Auditoriumean egingo diren kontzertuekin batera Iruñeko San Nicolas elizan ere hainbat zita izango dira. Larunbat honetan 17:45ean izango da lehendabiziko kontzertua Teresa Hernández eta David González de la Viña organisten eskutik. Kontzertu honetan Musikologia departamentuko ikasleek parte hartuko dute Raúl del Torok zuzendutako Schola Gregoriana Gaudeamus taldearekin batera. Eskainiko dituzten piezen artean daude J. S. Bachen BWV 546I do minorean preludioa, sol minorean BWV 542 'Fantasia y fuga' eta F. Couperinen 'El Kyrie y Gloria, de la Messe à l'usage des Paroisses'.

Osteguna otsailak 15

Datorren osteguna, hilak 15, Fernando Remacha Auditoriumean Irune Herbosa tronpetajolearen, Joaquín Marco kontrabaxuaren, Nekane Ibero gitarrajolearen eta Ana Maján biolinjolearen kontzertua izango da. Theo Charlierek tronpeta eta pianorako prestatutako bakarkakoa, J. B. Vanhalek kontrabaxurako prestatutako kontzertuaren zati bat eta Pere Vallsek kontrabaxu eta pianorako prestatutako 'Suite Andaluza', J. Rodrigok gitarrarako prestatutako Aranjuezeko kontzertua, J. Brahmsen biolin eta pianorako prestatutako bigarrenengo Sonata eta J.S.Bachek biolinarako prestatutako 'Partita 2.'.



Joaquín Marco (kontrabaxua), Irune Herbosa (tronpetajolea), Ana Maján (biolinjolea) eta Nekane Ibero (gitarrajolea).